




ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

16 Urtea 1934'ko Ilbeltza 181 Zenbakia

Urte-berri on! Zeruko Argia'tarai!



IZONAREN begiak argia nai; adimenak egia.

Lau mila urte ta geiagoko ilunbetak ongi asperturik zeuzken biotz oneko gizonak.

Jakob'en izafa, Isaiak esandako argia, ilunbetan zeuden efiak argitzera ba-zetofen.

«Gizonen argia» Juan Ebangelariak deitzen duena etofi zaigu. Egiatzko argia auxeda. Zeruko Aitagari beti argitan zegoan.

Orain gizonak argitzera etofia dugu.

Gizonen buruen argitzale guziak onengandik artu bear dute beren argia. Au da zeruko egiatzko argia.

Jesu Kristo atzo eta gaur, eta berori betiko ere. Jesus Christus heri et odie, ipse et in saecula. (Hebr. XIII-8.)

Zeruko argi ori ezta beñere itzaltzen. Jaungoikoagandik datoñen argia ta bera jaungoikozko argi egiatzkoa dugu.

Eta Jaungoikoak zeruko argi ori zertarako eman zigun, zeru aldera gizonak eramateagatik ezpada? Gizonak ilunbetan zeuden eta zeruko argi bizia etofi zan, gizonen zeruko bidea erakusteagatik.

Jaungoikoaren Semie ber-bera zan. Zerutik jetxia. Eta gizon egiñik, bere senideoi zeruko bidea erakustera zetoñen.

Aren egintza ta itz guziak bide ori argitzen duten argi-islak dira. Ofen argitasunean dabilena zuzen dabil. Argi ortatik urun dabilena, ilunbetan dabil.

Ebangelioak dionez askok argi ori ikusi zuten; baño etzuten siñetsi nai izan, naiago bai zuten ilunbetan ibili, argitan baño. Biotz oneko gizonak ordea, argi ori ikusi ta bereala argi ofek erakusten zuen bidetan sartu ziran.

Zerutik etofitako argi ofen argi-izpiak Euskal-Eria bañena zabalteko sortu zan «ZERUKO ARGIA».

Urtero-urtero eginbide oni dafaikio. Euskal-efitik landara bizi geran euskaldunok, ori ikusteak poztu egiten gaitu

Ainbeste mila euskaldunek ilero-ilero zeren etxetan artzen duzuela ba-dakigu. Nor eztu onek poztuko? Gure efitafak zeruko argitan daukazute zeren poza.

Zuei guzioi, guri bezelaxe gertatzen zuizutela gaude. Biziak aldate asko ditu. Urtearen asierako amets ezti gozoak, loreen antzean maiz bizitza laburfa dute. Gure ilabeteroko bizieran ordu onen ondoan, txafen batzuek gabe iñor gurtxi arkitzen.

Gure amets ederen loreak, artu baño len, erortzen. Ilero-ilero ordea, ZERUKO ARGIA agertzen zaigu lore befiz jantzirik. Irakurgai befi ta atsegiñez orniturik. Eta gure amets igartuak gozakaizturik utzi duen biotza, aren agefaldiak gozatu egiten du, aren etoferan naigabeak arintzen dira, zeru iluna garbitzen da, goibelak iges egiten dute. Emen dugu gure ZERUKO ARGIA maite-maiteki mintzatzen zaigula, guri zeru aldera begiak jaso aziz.

ZERUKO ARGIA ezta lufeko argiaren antzekoa. Zerukoa, beti zeruko; ta lufean egonagatik, beti zeru aldera jo-azten digu gizonen. «Koriko txoriak, Korira beti» esanera ala da Saraitzu aldean. Zeruko Argiak zerura beti, esan dezakegu guk ere.

Argatik argi ori ematen zabiltzatenai ta argi ofen argitasunean gozaro zabiltzatenai, gure zorionak! Urte-befi on, ZERUKO ARGIA' tafai!!!

Guam'dik—Añayoz'ko Artzainak



LEON AMAIRUGARENA TA GIZARTE-ARLOA



ENDI (famili) beartsuari Efuki-mendiak on aundia zekar-
kioten. Baño etzan naikoa.

Oraiñaldiko langintzako tresna eta tramankuluen aurre-
rapenaz, aberatsa gora zijoan; beartsua befiz lengo tokian gelditzen
zan. Baño lengo tokian ere ez. Len nagusiak aren bear aundia zuan;
gero ordea, nagusia lagile gutxiagoekin obeki zijoan.



Aingeru ta gizonak Jesus Aña jauresten.

Onela aberatsaren ondasunen goraldiak, langileen beraldia za-
kafen. Langileak irabazi geiago zekarkion nagusiari; baño aren lan-
saria etzan goratu. Langileak lan gutxiago ta sari ohea nai zuen.

Ortik nagusi ta langiileen arteko ezta-bai gogofak eta arlo (1) erabaki zaia.

Oraintxe berogei ta bi urte dira Leon amairugafenak gizarte-arlo (Cuestión social) ori, bear zan bidez zuzendu zuela.

Oraín bi urte, Leon Amairugafenaren erabakiak berogei urte betetzean, gure Amaikagafen Pio Aita Santu maiteak, beste agiri bikain bat eman zuan. Berontan lengo Aita Santu aren agiria noiz ta nola sortu zan eta zer ondasunak ekafi zituan adierazten digu lenik.

Goazen ba-da Aita Santuaren itzak entzutera.

Bi bizi-mailetako gizataldeak

«XIX-gafen eunkia (mendea) bukaeran zan. Efidi geienetan gizartea bi bizi-mailetako taldetan berezirik agertzen zan, gero ta geiago. Kopuru-bide befiak (nuevo sistema económico) eta lagintzako auferapenak ortara zakarten. Talde batekoak, gutxien izan afen, oraingo auferapenak sortzen dituzten onerapen geientsuak eskura zeuzkaten; bestekoak ordea, alako langiile taldeak izanik, alpefik zebiltzen indarka, bere estutasunaren azpitik atera naiez.

Batzuek pozez, besteak negañez

«Alako egoerara gauzak etofirik, naiko aberastasun zeukatenak artara efaz jartzen ziran, alabeahezko lege ez egindako irabazitzat bai zeuzkaten. Ortik (beste aldekoen) premi guzi oiek estaltzeko eginkizuna, efukitasunaren ardurapean uztea; zuzentasunari idekitako atakak, efukitasunak itxi bear ba'litu bezala. Gizon lege-giileak ori ixilik eraman ezezik, aldiz ofen alde egiten ere zuten.

«Langiileak beste aldera. Beren egoera negargafiak naigabeturik, ori oso neketan bai-zeramaten eta alako uztafi gogofa luzaroago eramateko ez bai-zeuden. Oietako batzuek, lagunuen batzuen esan gaiztoz bultzaturik, naspilaldi osoa nai zuten. Beste batzuek, kristau jatofizko oituretan, alako jokaldi biufietarako eragozpina arkitzen zuten ordea, gauza auetan aldaketa sustraizko ta zitua (berealakoa) gauza askok bear zutela ezagutu afen.

Guziak argitasun bila

«Apaiz eta bestelako katoliko askok ere berorixe uste zuten.

«Auek beren goimaitasun afigafiak aspaldi eragiñik zebiltzen.

«Ezin siñetsi bai-zuten iñolaz ere, (gure) Egile jakintsu-jakintsuaren esanakin lufeko ondasun-gune ain aundia ta makufa egiaz batu zitekenik.

«Gizarteko okerbide ain negargafian, berealako zuzenbidearen eta afixku aundigoetarako gordeka, babesa edo gerizu sendo baten

(1) Gizarte-arloa, langiile ta nagusi arteko eginbide ta eskubideen jakintzari esaten zaio.

biñ zebiltzen. Baño giza-buruaren makaltasunez, oberenen aldetik ere, befiketa afiskutsu-zaletzat zapuzturik gelditzen ziran batzuetan; beste batzuetan beren lankide ziran aien aldetik sortzen zitzairen eragozpena; bein alde bateko ta bein besteko iritzipenetara zeudenetatik eta ontatik zetofen ainbeste iritzipenen artean nora jo ez jakitea.

«Ofenbeste iritzipenen arteko ardaletan, alde bateko ta bestekoe-tan ezta-baien gafak goratzen ziran artean, (eta beti-beti ez gero gozaro), guzien begiak Pedro'ren Alkironetz (Alkira) itzultzen ziran. Egi guzien itur-begi donea ura bai-da, ta lurbira osoan esan gaizkatza-lea (salbatzailea) arek zabaltzen bai-du.

«Nagusi ta langileak, gizarte-arlotan ondo jafiak ere, oi ez bezin maiz, Kristo'ren lufeko Ordekoaren oñetara zijoazen. Eta, bide zu-zena erakusteko, eskatzen zuten ago batez.

Aita Santuak noizpait argia eman zuan


«Aita Santu zuur arek luzaroan oldoztu (ondo pentsatu) zuan Jau-naren afean gauza auen egoeraz. Gizon jakintsuen onua, aolkua eskatu zuen-eginbide onen ikusteko aundia zearo ta alde guztietara begiztu zuen; eta azkenean bere gain zeuken «apostolu-erako egin-kizunaren oarpenaz» beaturik; eta aren ixiltasuna eginbidearen axo-lagabekeritzat etzezaten artu, Kristoren Eliza osoari ta gizadi osoari itzegitea erabaki zuan, bere Irakaslaritza jainkozkoaz.

«Ain luzaroan itxoin-dako itzen otsa, 1891'ko ofiñaren 15'e-an en-tzun zuten. Eta gaiaren zailtasunaz edo zartzaroaz makaldua ez ba-ño, sendotasun befiz jantzirik, gizarteko bizitzarako bide beñiak giza-diari erakutsi zizkion.»

«Aberatsak eta langileak dirua dakartenak eta lana dakartenak alkañen artean dauzkaten eginkizun eta eskubideak, izentatu eta adierazi zituan; gauza oietan Elizari ta artan dabilztenari zer dago-kien ere bai.»

Intzar Damaso An.





DIXIT INSIPIENS

(XIII^a GAËN SALMUA)

«Eztago Yainkorikan»
dio zentzugabeak
bere biotz barnean.

Usteldu, galdu dira,
ibilera tzarëtan
basaturik dabilta;
ongia dagienik
eztago gizartean.

Yainkoak ortzi goitik
luëra egin du so,
gizonetan zintzorik
edo Yainko-zalerik
ote den ikusteko.

Oro zeartu dira,
makurbidez dabilta;
eztago, ez, gizonik
ongia dagienik;
bakartxo bat ere ezta.

Ez al dute zentzurik
tzarkeria-egilek?
otamen bat iduri
ari zaizkit iresten
nere ëri maite ori;
eztiote Yaunari
bat ere dei-egiten.

Izutzeko biderik
etzegoen tokian
izu-beldurtu dira;
zintzoen askazian
baitago gure Yauna.

Gizon txiro gaxoen
xedeak paëagari
nai dituzue yari;
alferik! Yauna bera
baita aien estalpea.

Ai nork lemoken gaizka
Sion-dik Israeli!
Yaunak, etsaiën pean
dagoen bere ëria
askatzen duenean,
Yakob alaituko da,
Israel poztuko da.

Iraizoz'ko Polikarpo A.

GALDE-ERANTZUNAK

Aragi-uzteko eguna nagusiak aldatu al lezake?

Jauna, Nagusi baten-tzako ogei gizonak la-na egiten degu. Arek jakitako aragia eman zigun aragi-uzteko egun batean, añaia garesti zegoala-ta. Ufengo egun batez bijiliz eman zigun. Berdin al da? *Langile batek.*

Adiskide, berdin nondik izango da? Aragi-uzteko egunak egun jakiñak dira. Aita Santuak artarako aukeratutakoak eta Eliza osorako aginduak.

Aragi-uzteko egunak, baru-egunak bezalaxe, Aita Santuak bakarrik jafi le-zazke Eliza osorako; eta Arek berak aldatu edo kendu. Elizaren Legeak ala di? Can. 1244.

Eridi baterako ofelako aragi-uzteko egunak barkatzea Aren eskuan dago. Eta argatik Españiko Agintzapean dauden lufetarako, aragi-uzteko egun asko barkatzen ditu Bulda santua artzen dutenentzat, urbilen galdean ikusi dezake-zunez.

Gotzaiak beren Eliza-barutian aldien batez baru edo bijili-egun bat jafi le-zakete; aragi-uzteko eguna, beste egun batera noizpait aldatu ere bai aldi arta-rako (Can. 1244 § 2.º)

Baño etxetako nagusiak alako aldaketarik egiteko ez dute eskubiderik; ez-ta aita-amak ere berentzat edo beren umeentzat.

Buldarekin zer irabazten degu?

Nere senafari burua berotu diote la-gunak Bulda santua lengo urtean artu-zuelako. Eta aurren ez degula ofen beafik dio. Ea Buldarekin zer irabazten de-gun? *Ramona E.*

Zure senafari argitasuna poleki-poleki emaziozu. Bulda santua ontarte aun-diak dakarzkizuen gauza dezute, ez uste izan afen. *Cruzada'ko* Bulda santua artzeak, beste Buldak artzeko bidea idekiz gañera, urtean *larogei* egunez eta geiagoz induljentzi osoak irabazteko bidea dakarkizue aitortu ta Jauna artuz gero, baita eriotzako ordurako induljentzi osoa ere Jesus'en izena agoz edo gu-txienez biotzez esanez. Ortaz landara *Entredicho'ko* garaierako, pekatu bere-zien barkapena irixteko eta beste berexkuntza aundiak.

Aragizko Bulda'rik, nai ez duelako artzen ez dunak, aragi-uzteko egun auketitu: Urte guziko ostiralak, Austere eguna, Garizuna'ko Larunbatak, tenporetako Asteazken, ostiral eta larunbatak. Pentekoste, Agutzuko Andre Maria, San-tuguzi ta Eguerietako afekeko egunak.

Aragizko Bulda duenak beñiz aragi-uzteko egun auketitu: Garizuma'ko ta ten-poretako ostiralak, Pentekoste ta Agutzuko Andre Maria'ren afekeko egunak eta Egueri afekeko larunbata. Besten aldean zein gutxi!

Bulda gabekoak baru dute garizumako egun guzietan, igandez landara; baita tenporetako asteazken, ostirala eta larunbatetan ere ta gañerako beste Bulda-dunen egunetan.

Bulda-dunak: Garizumako asteazken, ostiral eta larunbatetan, Pentekoste ta Agutzuko Andre Mariaren afekeko egunetan eta Egukeri afekeko larunbatean. Berexkuntza politak dira ba!

A. I.


Yesus Aurtxoa

Iraizoz A'ren itzak


Olazaran A.

Andante

Ye - sus Aurtxo - a or - txen da - tza, be - - - re A - ma -



-- ren be - so - - - e - - tan, ain - ge - ru - txo - ak a - - ri zai - tza pa -



fez e - re - si go - - - zo - e - - tan.



1 U - - me po - li - - - ta, e - - - gi - zu lo, i - - - txi be - gi -

2 Oi zein e - de - - rak di - - - ru - di - - ten, Au - - ra - ren ez -




ok len ba - - - ño len; zu - - re A - ma da goi - bel - - du - ko, ez
pain - aur - - pe - - - gi - - ak! oi no - la du - ten dist - e - - gi - ten, ma -




pa-di-o-zu
te-la-go-fi

lo e-gi-ten.
ta xu-ri-ak!



Uzkurtza edo erligioa

GIZONA



gitea.—Idazti Doneak edo Liburu Santuak auxe diote: Eta Jainkoak gizona bere antzera egin zuan: (Jen. 1-27.)

Adimen edo afazoiak.—Adimenak ere auxe adierazten digu. Denbora batean etzan gizonik; beraz norbaitek egin zuan.

Egile orek ezaguera eta naimen edo borondatea edo auek egiteko indarra ba-dauka. Inork ez dezake ez daukana edo egin ez dezakena inori eman. Esaterako dirua ez daukanak, edo bereganatzeko indarik ez daukanak ez dezakio inori dirurik eman: gizonak adimen eta naimena ba-du: beraz bere egileak ba-du adimena eta naimena edo bestelaz auek baño geiago balio duan gauza bat, adimena eta naimena egiteko indarra. Egilea au Jaungoikoa deitzen degu.

Loaiaz egin.—Jaunak gizona lufeko loiaz egin eta bere aurpegira bizi-aizea (anima) bota zion eta anima daukan gizon biziduna egiña izan zan.

Bizilekua.—Lenbizitik atsegiñezko leku bat landatu zuan Jaungoikoak; bertan jari zuan egingako gizona.

Agindu bakara.—Jaungoiko gure Jaunak gizona leku onetan au lantzeko eta zaitzeko jari zuan ta auxe agindu zion: «Atsegintegi edo Paradisuko zuaitz guztietatik jan; ontasun eta gaiztakeri zuaitzetik ez jan; onetik jango dezun edozein egunean il egingo zera.»

Emakumea.—Agindu au Adan'eri eman ta gero, au lotan zegola Jaungoikoak berari saiets-egur bat atera-ta, lenengo emakumea egin ta laguntzat eman zion: Eba da bere izena: Adan gizon guztien aita eta Eba gizon guztien amada.

Pekatua.—Sugearen itxuran deabruak emakumeari esan zion:—Zergatik agindu dizue Jaungoikoak Atsegintekigo zuaitz edo arbol guztietatik ez jateko? —Atsegintekigo zuaitzetatik jaten degu; baño Atsegintegiaren erdiko zuaitzaren zitu edo frututik ez jateko agindu digu Jaunak, eta bestela ilko gerala.—Ez etzerate inola ere ilko. Ba-daki Jaungoikoak zuaitz ofetatik jango dezuten egunean zuen begiak idekiko dirala: eta txarria ezagutuaz Jaungoikoak bezela izan-go zeratela.

Emakumeak zitu edo frutua edefa eta jateko ona zala ikusirik, aren zitutik artu, jan eta bere gizonari jateko eman zion eta onek jan egin zuan.

Zigorada.—Gero Jaungoikoaren abots edo boza entzun eta zuaitzen artean eskutatu ziran. Jaungoikoak Adan deitu ta bien artean izketa au izan zuten: —Non zera Adan?—Zure abots edo boza atsegintegian entzun det eta bilusik nengolako bildur izan det eta izkutatu naiz.—Nork adierazi dizu bilusik zeundela ezpada nik jatea debekatu nizun zuaitzetik jan izateak?—Laguntzat eman ziñidan emakumeak eman dit eta jan det.

Jaungoikoak emakumeari esan zion:

—Zergatik egindezu au?—Sugeak atzipetu (engañatu) nau eta jan egin det.

Jaungoikoak sugeari esan zion: Au egin dezulako madarikatua zera abereen artean. Aserreak ipiñiko ditut zure eta emakumearen artean. Zure ondorengo eta aren ondoregoen artean, berak zure burua zapaldu egingo du.

Emen Jaungoikoak Gaizkale edo Salbatzalea bialiko duala adierazten du; onek bere odola ixuriaz guri zeruko ateak idiki eta deabrua menderatuko du.

Emakumeari.—Emakumeari esan zion: Zure nekeak eta aurgitea ugarituko ditut; semeak nekez jaioko zaizkizu eta gizonaren mendekoa izango zera.

Adan'eri.—Oneri au esan zion: Zure andrearen abots edo boza entzun dezulako eta nik debekatutako zuaitzetik jan dezulako, mandarikatua izango da luña zuregatik; zure biziko egun guztietan nekez aterako dezu lurretik zure jatekoa, janaria.

Arantzak eta lañak emango dizkitzu. Artua izan zeran luñera itzuli arte zure kopetako izerdiz ogia jango dezu; luña zera eta lur biurtuko zera-ta.

Jaungoikoak lenengo gurasoai laruzko soñekoak egin ta jantzi zizkien. Gero Atsegintegitik bota zituan eta Jaungoikoak ara juatea galerazteko suzko ezpatadun aingerua leku ura zaitzen jafi zuan.

Pekatuarengatik galdua.—Gizonaren griñak nasi egin ziran: ofegatik etziran lenago billusik egoteaz lotsatzen, gero bai. Bizi onetarako neke aundiak etori zitzaizkien. Zerurako esker edo graziak galdu egin zituzten bai bereztat, bai gureztat; bestela jaiotzean auek etoriko zitzaizkigun eta. Ofegatik jaiotzean gera jatorizko oben edo pekatuan.

Zerua.—Esker edo grazirik gabe onera ezin juan gintezkelako, zerua ere galdu genduan.

Jaungoikoaren erukia.—Bera gizonaz erukiturik, Gaizkale edo Salbatzalea bialiko duala agintzen du.

(Emen esandakoa Jenesi edo Jatorien liburutik artua da.)

LITURJIA.—Abenduko eleiz-otoitzak. Etori bear duan Gaizkale edo Salbatzalea artzera prestatzeko egoki-egokiak dira: ofetarako jafi ditu Elizak.

Eliz-jantzien margo edo kolorea morea da eta Gaizkale edo Salbatzalea ondo artzeko pekatuen damutasunezko egintzak egin bear dirala adierazten digu.

ELIZKIZUN ETA ELIZGIZONEN DIRUA

EZKONTZ-AURÉAN



PATXI gizon usmadun eta zurák somatu du sakela gordetzeko bidea...
—Aizu Malen: emendik txakur txiki bat, andik eñiala, ortik laukobat, atzamarka-atzamarka sakela beti uts-utsik daukagu: orain beñiz amar txakur txiki eliz-jaietarako eta apaizarentzako eskatzen dizkigute.

Urte gutxiren buruan eztingute eñenta txikia eramango!

—Zer nai dezu Mañuel, zala baita bizitzen: apaiz gizajoeke beste bizi biderik ez daukate.

—Burudun eta begi erne naizela badadizu zuk.

Gure apaizari, bere beañian arkituko geran bakoitzian ordainduko diogu. Bizargileari bizafa kentzean eta Abere sendatzaleari noiz? Bizargileari bizafa kentzean eta Abere sendatzaleari hazienda sendatzian.

Apaizari gisa berean; bere beañian arkitu eta zerbait lagunduko didanean, ordainduko diot.

—Kasketa gogofa, biotz zura, asmo zirtzilak dauzkak Mañuel eta ala ere irekin ezkondu egin bear?..

Ezkondu ondoren

—Esan nizan Malen eta esan nizan: Zure Mañuel beti burudun beti begi erdezula; ofengaitik dakizki gauzak ondo erabakitzen: Apaizari ordainduko bere ne beañian arkituko naizenian: Elizari ere emango amartxakur eta geigo, elizara etofiko naizenian.

—Jakintsu aiz Mañuel...

—Ez gero txikia. Zuzenago ezetz erabaki?.. Baratz zaiari baratza landuko digunian, sendatzaleari miñez gaudela sendatuko gaitunian, apaizak ere guri lagunduz lan egingo duenian bere saria izango du. Bitartean Malen maite oni, dirua gorde, Mañuel gizaxoa izerdi patsetan diru irabazi naian darabilkizu ta.

—Ala uste Mañuel?.. Ilñan amar txakur txiki gure apaizari eman nai ez dizkioztzu eta beañian arkituko zeran bakoitzian emango dizkioztzula diozu?

—Apaiz beañian gutxitan arkituko bai gerala!

—Sasi jakintsu galanta aiz i Mañuel!..

Apaiza igandero bear degu eta beste amar bat jai aunditan ere bai, irurogei aldi gutxienez bai urtean: atera kontu, ilero eman nai ez, eta apaiza bear dezun aldi bakoitzian ordainduko diozula?..

—Ni joaten al naiz elizara? Eliza emakumeentzat.

—Eta zuk nai ezpadezu ere, seme alabentzat. Zu ezipazera joaten, zure seme-alabatxoarekin an naukazu.

Mañuelen familia elizara dijuakizu jaiero eta apaizaren beafa daukazun bakoitzian ordainduko diozula diozu.

Zuzen asmatzen duzu dirua gorde eta ugaritzeko...

—Ez joan ta kito.

—Ez joatia nere eginbeafak ez betetzia litzake.

Naikua zuk ez betetzia eta beñere betetzen ezipadezu ere, apaizak bere egin beafa igande eta jañetan Meza emanaz betetzen du. Eñian Mezik emango ezipalitz maf-maf, zeñek?.. Mañuelek.

—Batxiñera aiz i nere maite ori.

—Guzia eztakizu oraindik. Apaiza gure umetxoei Kristau ikasbidea erakusten

ari zaie. Jauna artzeko garaia datorkiotenean, eman gabe utzitzia bañan naiago zenduke zuk muturkeko bat artu ez ote?

Apaiza bear dezunian ordainduko omen diozu zuk. Orain arte zenbat ordaindu diozu zuk?..

—Andre Madalen... fi... fi... fi...

—Zaude zaude, aitu oraindik. Bear dezunian apaizari ordainduko diozula... zenbat ordaindu zenion bi umetxoak bataiatu zituenean?..

—Fi... fi... fi... Atautxi-amauxiek ordainduko zioten.

—Izan leike, baño ez apaizak eskatu zuelako.

Aizu Mañuel: eta zenbat ordaindu zendun zuk, ezkontzeko aitortu ziñanean?..

—Alajaña: 12 pezeta eman bear izan giñuzen ezkondu gizañean... dana batian, zobeikiago oraindik?..

—Ofein bazkari ona egingo zekian apaizak egun artan.

—Beste orfenbeste zenoz emango?

—Bein naikoa da.

—Ago ixilik, ixilik ago. Gure amak baztanga izan zuenian apaizagau eta egun ementxe ibili zitzaigun.

¿Ezer eskatu alzigun?.. eta sendatzaleari ez al zenion ordaindu bear izan?

—Naikua dun Malen. Naikua dun... *Altza Pilipe Trum la lai,trum la lai...*

—Altza, jeiki adi bai eta eskua luzatu zazu apaizaren alde... etofiko zera gaizkitzera eta ordun apaiza naiko dezu, eta berekin aitortzeko eta zuri laguntzeko zure ondo-ondoan egotia naiko dezu. Ordaintzeko etzera ordun gauza izango zu. Ezagutu bearko dezu bai alpef-alpefik esaten zendula:

—«Apaizari ordainduko diot bere beafian arkituko naizenian.»

—Amen, amen, Madalen, amen!


Ni alproja galanta naizela amaika aldiz zuk esana. Nere aingeru zaitzaltza zerala, miña aldiz ta geiago orain nik zuri dizut.

—Bion artean gauzak obeko ikusten baitira. Bakarrik itxu-itxuan kaikukeri ugari daukazu zuk...

—Amen, Madalen amen! Badakizu ba, ilian-ilian amar txakur txiki apaizari.

Zure kontu ori Madalen...

Oyartzuna.



*Pelo Marin Andrea
eraz al da ikustea?*

JAINKO EDARI

Goizero dadat Jainko-ontzitik,
Jainkoz betetzen dun edaritik.

Euri, azkuñi,

Bildots-ituri,

gogo-baratzaren ezagari.

Ez duzu lorerik urgabea.

Izaki oro da yanzalea.

Ortik bizitza,

ortik emaitza,

egalunduki biotz-zuaitza...

Urleze dugu Jainko-bulara.

Gañezka dagertzi odol ta gara.

Or nau suztatzen,

or nau mozkortzen,

ezpañez tinki gogoz bazkatzen.

Edan ala pozez nau zorutzen.

Jainkoa baita ogi-arnotzen.

¡Zein diran gero

—ogi ta ardo—

naiz alaigari, naiz zorabio!

Lore mardul, aize-me-gozoak

daragiona, dama gogoak.

kulunka gozoi...

Maiteak beso

kuma biguntzat baidizkit yaso.

Nere zorion Maite-besotan,

Urtzik damaigun zibu-dilindan.

Jaunak nabilki

poz ta dardarki,

ezpañetan iria igeriki...

Ez nau bultzaten untziarenak.

Egoak ere ez aranoenak...

¡Jainko-indara bera dut bultzagai!

Lur,aize,itsasoz...narama nuranai!

... ..

Ene gogo,

egunoro


abil, egatu!

¡Ots, egurastul...

Edan oi baitun Jainko-ontzitik,
Jainkoz betetzen dun edaritik.


GAZTELU

Muskaria, 16-IX-33.



Nazaret-eko etxe sanduan gosea

(Esaera-zafa)



GUN batez, Nazaret-eko etxe sanduan, Jesus, Maria ta Jose bizi ziran etxean etzuten ogi puskatxo bat ere jateko. Jose sandua eri zegon, ezin zezaken lanik egin, ezta beraz ezer irabazi ere. Jesus-en Ama gozo Mariak bere semetxo ofengan josi zituen bere begiak, ardura ta kezka betarik. Jesus ain gaztea izaki oiaño, eta alaere lan gogofan ikusi bear gaxoak, bere gurasoen etxera sartu zan beargori artan.

—Enetxoa, esan zion Mariak; ogirik eztugu, eta ogia erosteko dirurik ere ez. Ar zazu saskitxoa ta ta zoaz andre Yoanagana; Andre alargun aberats bat da, eta oso biotz-bera ta ongi-egilea dalako entzutea du efi guzian. Afek lagunduko digu noski bear ordu onetan.

Jesusek artu zuen bereala saskitxoa ta bideari lotu zitzaion. Ume aintzu, eresi politak kantatuz zioan, eta txoriak beren txinta-txio goxoenaz laguntzen zioten. Laster iritxi zan andre alargun aberatsaren jauregi dirdaritsu artara. Atean jo zuen, ta mirabe batek ideki ta galdegin zion:

—Zer nai duzu aupa?

—Etxeko andre onari itz egin nai nioke, erantzun zion Jesusek.

—Egun onean zatoz! Ain xuxen ere, nere etxeko andreak gaur guziaz, baita beartsuak ere sarbidea eman die. Atoz eramango zaitut arengana.

Mirabearen ondolik igo zan beraz Jesus atxurdin ederezeko maletan gora, eta andre andikiaren aupa agertu zan. Gorputza makurtuz agur egin zion, eta gelako ate ondoan gelditu zan txutik.

—Atoz onuntzago, ume eder ori! Esan, zer bear duzu?

—Nere amak eztu ogirik etxean. Nere aita eri dago. Dirurik ere eztugu eta dirurik gabe eztugu inork ogirik eman nai. Zu biotz onekoa zera ta afen! estura onetatik atera gaitzazu. Aita befix sendatzen danean, utsean ta gabe lan egingo du zure etxean.

—Aupa, ederki ikasi duzu zere itzalditxoa; baña nik ezin dezaket ori ontzat artu. Begira, ni egunero ordu jakinean eliz-atarira joaten naiz eta an bildurik egoten diran beartsu ta eskaleak nere emaitzak banatzen dizkiet. Zu ere ager zaite bada biar eskale oien artean eta antxe emango dizut bear duzuna. Emen etxean ezut ezer ematen. Zoaz.

Jesusek apal ta goxoki agur egin ta eskerak eman zizkion. Baña aita-amentzat ezer bildu etzuelako gogo-izundurik, jetxi zan zurubian bera ta etxerako bidea artu zuen. Zortzi urte zituen garai artan. Goiza ezkerre etzuen deus jan egun artan, eta orduan izuntzea zan. Ala ere, bere goseak baña naigabe andiagoa ematen zion bere gurasoak ezer-ezin-eramanak.

Bat-batean, etxe txar bat aupa tenk egin ta adi-adi jafi zan. Atea ta leioa zabalik zeuden, eta lagun askoren aotik ateratako itz auek eldu ziran bere be-

larietara: «Jahwe, gure aiten Jainkoa! zeru-peko egaztia! jatekoa ugari ematen diezu; emaezu oro-bat Israeldar guziaz bear duten janaria. Amen.»

Familia on bat jan-aufeko otoitza egiten ari zan; etxeko umeak ere esaten zuten otoitza. Beren mintzura txintxoetan laster ezagutu zituen Jesus'ek. Ume aietako batek ere ikusi zuen Jesus karikan zegoela, ta bere amari oiur egin zion:

—Ama, begira an! Iriko ate ondoan nola baita etxe txiki bat? An bizi dan zurginaren semetxo Jesus or dago karikan. Ots egingo al diot sartzeko?—Eta amak baietz esan gabe, umeak lasterka atera ziren karikara, eta poz-oiuka sararazi zuten Jesus beren etxera. Ama ere poztu zan aurtxo ura bere etxean ikustez.

—Baña, aizu, Jesus! onen berandu da ta zergatik zeude bakarik karikan?

Eta Jesusek orduan kontatu zion, etxean ogirik etzutela ta bere amak bidali zuela jende onai zerbait eskatzera, ordurrate etzuela ordea ezer bildu.

—Goseak zaude geroztik gaxo ori! Ots, eseri zaite nere aufean ondoan eta jan zazu oiekin. Gogotik utziko dizut nere partea.

—Baña, andre Joxepa, ortaz zu jan gabe gelditua zera. Ez, nik eztut ori ontzat artzen.

—Ez izan kezkarik, aufa! Ni azkar ta sendoa naiz eta aise iraungo dut bi ar arte; biar nere senarrek ekariko digu beriz ogia.

Jesusek begi eskertsuz begiratu zion biotz oneko andre ari: gero eseri zan beste umen ondoan ta jan zuen gogotik.

Bitartean, andre Joxepa joan zan kutxara, artu zituen an biaramoneko gorderik zeuzkan ogi ta esnea, Jesusi eman zizkion esanez:

—Tori, artu au ere ta etxera eramazu, zure gurasoak ere pixkortu ditezen.

Aurtxoak eskertsu artu zituen emaitza oiek eta bere saskitxoan gorde zituen. Gero etxe aldera abiatu zan. Aingeruak etofi ta saskia eramaten lagundu nai zioten. Jesusek ordea bidali zituen esanez: «Giza-Semea ezta besten nausi izatera etofi, besten mofoi izatera baizik.»

Azkenean iritxi zan bere etxera. Ate ondoan zegon Ama beraren zai. Ta bere biotzeko kutun ura ikusi zueneko estu-estu ta maite-maiteki besarkatu zuen. Aurak Amari kontatu zion gertatutako guzia nola andre aberats arek ezer eman gabe bibali zuen bere etxetik, ta nola andre beartsu arek beriz al zuen ongiena lagundu zion.

Mariaren begietan negar-malkoak agertu ziran, eta bere semeari esan zion:

—Zu Jainko zera, zeru-lufen jaun ta jabea, lengoa, oraingoa ta etorkizuna zere begien aufean duzu. Esaidazu bada neri, zure ama naizen oneri: Zer gertatuko zaie zu ofen ez-berdin artu zaituzten bi andre oieri?»

Jesusek erantzun zion:

—Ni esku utsik bidali nauen andre aberats ura ongi-egile da besteen alde-rra. Baña jenden agerian, jende ikusi dezaten egiten du ongia ta munduko saria biiltzen du. Ofegatik, bizi den artean ikusiko ditu bere azienda-taldeak ugaritzen ta aletegiak betetzen. Lufeko ondasunak onentzat izango dira. Joxepak ordea aufera ere biziera latza izango du, gogofak ikusi bearko ditu bere senar ta umekin batera. Baña gero nere Aitaren etxera eramango ditut, eta gaur neri egin didaten ongiaren saritzat betiko zerua emango diet.

Gero bere eskuak bular gañean irutzi ta begiak gorantz itzuli ta esan zuen:

—Joxepa ta bere etxekoak nerekin biziko dira sekula guzian! Ni nerau izango naiz beren sari guziaz aundia!

URTSUIA.



Holanda'ko katolikoak beren mixiolarien alde.

Mundu guzian zabaldurik dauden Holanda'ko mixiolari katolikoak ez dira beren lanetan len bezin bakarik egongo. Astero, ordu oso bitartean, Holanda'tik radioz bialtzen zaizkie asteko berri galenak, mixiotako, Holanda'ko ta beste eritako beriak. Mixiolariak auferapen au Holanda'ko katolikoai zor die, K. R. O. (Katholike Radio Omroep) izenarekin duten radioari.

K. R. O.'tik zazpi urte ba-ditu ta urte oietan oso lan bikaña egin du, mundu guziko katolikoan berriak zabalduaz, Mixiolariak ez dizkie astero munduko berriak bakarik ematen; entzuteko bear dituzten tresnak ere oso diru gutxiz ematen dizkie.

Lan edera egiten dute Holanda'ko katolikoak, zion Propaganda'ko buru dan Fumasoni Biondi Kardenalak, mixiolariantzat asteroko ordu au ipiniaz. Ordu onek zenbat ez ditu gozatuko mixiolariak beren bakartasunean eraman bear dituzten lanak. Lanari jaraitzeko, nola ez dira berotuko, beren anaiak, katolikoak ain gogoan dauzkatela ikusirik?

Rusia'ko inpernutik etxera.

Rusia'ko espetxetan (cárcel) makiña bat neke ta oñaze eraman da gero, etxera itzuli dira Lituania'ko 11 apaiz katoliko. Rusia'tik atera ta lendabiziko geldoki edo estazioan apaiz asko, gotzaia buru zutela, bere zai zeuden. Kowno'ko gotzaia ere an zan, Aita Santuaren izenean ongi etoria eta batez ere bere Bedeinkazioa emateko. Jesukristo ta Elizagatik ainbeste neke eraman dituzten gizon bikain oiek ikusteko gogo aundiak zituzten katolikoak eta bideko geldokietara asko ta asko atera zitzaizkien, beren onginaia nolabait erakusteko. Amaika apaizak zetozten gurdi edo bagoia bereala lorez beterik gelditu zan.

Erukari etorri dira gizaxoak, oso galduak eta nolanai jantziak. Baño soñekoak baño obeto beren arpegiak diote zer ikusi bear izan duten Rusia'ko espetxetan. Gizonen aurfear beren siñesmena ain ederki aitortu dutelako, zorionekoak.

Canada'tik katolikoak.

Ango berriak diotenez, Canada'n bizi diran katolikoak 4.285.388 dira. Oietatik 2.927.990 prantzetafak dira, gañerakoak beste erri askotakoak: Irlanda, Eskozia, Ingletera, Austria, Hungria, Italia, Polonia, Ukraina, India ta beste eritatik etorriak. Ez da ba siñistu bear prantzetafak ez diran katoliko guziak ingelanda-fak dirala. Canada'n izango dira 900.000 katoliko, prantzetafak ez diranak, ezta ere ingelanda-fak. Izkuntza ontako katolikoak 400.000 izango dira gutxi gorra bera.

Indietan 40 urte igaro ditut, dio mixiolari batek, eta munduaren bira egin det. Ogei urtez, emeretzi eñari begiratu bear izan diet, ta bakoitza urtero iru aldiz ikustatu det. Nere mixiolari-bizitzarek lendabiziko amabi urteetan, 13.200 kilometro egin ditut idi-gurdian; 13.290 kilometro, idi ta gurdi ber-berakin. 1907' garén urtetik oneraño 23.600 kilometro egin ditut bizikletan, beti tresna berarekin. Zenbatzen edo kontatzen badira gero, ara ta onera egunero egin bear izan ditudan kilometroak, mixiolari naizenetik, munduari bira eman diotela, egitan esan dezaket.

Italia ta Mixioak.

L'Observatore Romano'k dionez, mixiolari geienak ematen dituzten erien artean, bigarén tokia dauka Italia'k. Iya 9.000 omen dira gaur mixiotan lanean ari diran Italia'ko praiñe ta monjak, mixiolari guzien artean 109'dik 15.

Joan dan urtean, Siñismen-zabalkunde-Bazkuna'rako egin dan diru bilketan, bigarëna izan da Italia, Europa'ko eñien artan. Joan dan urtean, loretan sei miloi t'erdi bildu dira Italia'n, eta «Mixio-egun» batean bakarik 2.253.000 lira bildu dira.

¡Nolako bidea ez da ibili 1835'garén urtetik! Urte ontan Italia'k 90 lira eman zituen!

Et exaltavit humiles...

Ama Birjiñaren itz oiek, nai ta naiez, burura etortzen dira, bere Sorkunde Erugabeko egunean, Eröma'n egin diran jai ederak ikusi ta gero,

¡75 urte oietan nolako gauzak ez dira ikusi! 1858'garén urteko negua zan, Artzaintzan zebilen nexka bati Ama Birjiña agertzen zitzaion Massabiele'ko arkaitzetan. Lau urtez lenago, Aita Santuak erakusten zuan siñistu bear zan gauza zala Ama Birjiñaren Sorkunde Erugabea. Baño Bernardatxo'k etzekien ezer; bakar-bakarik bere agurtza edo erosarioa esaten. Bernardatxo'k lourdestaren eran itzegiten zuen eta Ama Birjiñak ere ala egin nai izan zion: «Que soy era Inmaculada Councepciou.» Gero asi ziran Lourdes'ko mirariak, gero eñiak etortzen, gero Lourdes'ko Ama Birjiñaren eta bere artzaitxoaren izenak mundu guzian zabaltzen... Bernardatxo ikaratu zan eta munduari iges egiñaz, konbentu batera sartu zan, Jaunaren afean ixil-ixilik bizi ta bere besoetan ixilik iltzera.

Et exaltavit humiles... ¡Egun aundia Bernardatxo'rentzat 1933'go Abenduaren 8! Egun ortan mundu guziko katolikoen begiak bereganatu ditu, Aita Santua bere eliz bikain-eder-galantara jetxi ta bere Kardenalen, ainbeste gotzai ta ainbeste kristauen afean santuen artean ipini duanean.

Ama Birjiñak, bere Semeak bezela, txikiak eta apalak goratzen ditu, txikien bitartez gauza aundiak egin nai ditu, zion Aita Santuak egun ortan. Bere Sorkunde Erugabea erakutsi zuen Aita Santuaren itzak indartu nai zituen Ama Birjiñak eta ortarako nora jo? Ez gizon jakintsuengana, ume batengana baizik; ez gizon afoengana, biotz garbi-apaleko artzaitxo batengana baizik. Oni esan zion Ama Birjiñak: Sorkunde Erugabea naiz Ni.

Ama Birjiñak eta Bernardatxo'k lagunduko al digute, Aita Santuak esan duanez, katoliko guziai, urte santu ontan, irabazpen asko irixten, baño batez ere, munduak ezin eman dezaketan eta guziok ainbeste bear degun pakea.

Aintza Jaungoikoari

Mikel donea eta Luzbel etsaia.

UZBEL.—(*Bat-bayetan eta zarata aundian agertzen dalarik*). Ni inpernuetako efege altsua naiz! Gau eta egun goietako Jaunarekin burukan nabil; eta Jaun ofen kaltetan, gizonak nere menpera ekartzeko egiñala guziak egiten ditut. Nik gizonai atsegiñ zoroa eskeintzen diet eta berak uste ez dutelarik, nere sareetan bildurik gelditzen dira. Nere izena eta nere irudiak jauresten dituzte; Jaungoikoarenak befiz gaitzetsi eta oñazpiratu. Ofela aren aginduiak autsie-razi eta aren eskefa eta adiskidetasuna galerratzen diet eta zuzenak izanik zeruetara joan bear luketenak, beti-beti nerekin batera efe ta kixkaltzera inpernuetara eramaten ditut. Beren egile ta Jabearekiko eskerbeltzkeria ofela ordaintzen dute...

Gizadi guzia nere mendean dadukat...

Bakar-bakarik emakume batek ez ditu entzun nai nere esanak. Bein da befiz erasotzen diot; baña beti ezetsi egiten ditu nere zorapide guziak... Bere izena Miren da. Gizon jitzalgari batekin ezkondu-rik dago...

Emakume ori ote da nere nagusitza betiko ondatu bear duenaren ama?.. Ofek lertu bear ote du nere burua?.. Gogoratze utsak dardara ematen dit... Ai enel!..

Bai, ori da noskil!.. Egiñalak egiñ afen, nere legunkeri bat ere ez du onetsi... Gau eta egun aingeru taldea dabil bere inguruan... Bai, Mesias agindua neskato ofek jaioko du bear bada...

Bañan, Mesias goitara, beste gizonak bezela jaioko ote da?.. Efege altsu ofek bere aulkia abere artean ipiñiko ote du?.. Ez, ori ezin daiteke!.. Ofenbesteko apaltasuna goietako Jaunarentzat geiegizkoa litzake...

Bañan, alarik ere... Ara! Aur ori jaiotzeko ordua eldu da. Zeru eta lurak zai daude... Jaio da!..

Goietako aingeru talde aundiak Aur ori jaurestera dijoaz... Inguruetako artzaiak, pozaren pozez, lasterka, estalperako bideari eman zazkio... Goizaldeko iru efege Aur ofentzat opariz beterik Belenerako bidea artu dute, izar edera bide erakusle dutelariak... (*Une ontan eres-otsa aditzen da*) Ara, aingeruen eresi eta abestiak!.. Ai ene, zori gaiztokoa ni!.. (*Aingeru taldeak, agertu gabe*), «Gloria in excelsis Deo. Et in terra pax hominibus bonae voluntatis. Laudamus te. Benedicimus te. Adoramuste. Glorificamus te» *abesten du. Luzbel bitartean uzkur eta bere asareta ezin menperatuz ibiliko da. Abes-*

tia bukatzen dalarik, beñiro asiko da izketan)

Ai enel!.. Bai, ori da Mesias! Ori da nere arerioa! Galdua naiz!..

Eta nik, gizonekiko nere efegetza betiko utzi bearko ote det?..
Eta nik ere Aur ofen oñetara makurtu bearko ote det?.. Ez, iñolare!
Nik ez det nere efegetza galetsiko. Ni ez naiz Aur ofen afean aoz-
peztuko. Aurka egingo diot... garbituko det... Inpernuetako in afak,
atozte! Mesias ofi eraso dezaiogun; lufetik aienatu dezagun. . Guda
Kristori!.. Bera Jaung...

(Luzbel burukarako abiatzen dan, une berean Mikel donea agertzen da, ezpata eskuan eta geldiarazten du).

MIKEL DONEAK.—Atzera, Luzbel! Nor Jaungoikoa bezelarik!..

LUZBELEK.—*(Ankaz-gora erorita)* Ai Mikel! Madarikatua!..

MIKEL DONEAK.—Luzbel, utzi itzak jardun alper oiek; jaio
dek bada lur ontatik aienatuko auena; eta ire asmo eta alegiñ guziak
Aurtxo ofen oñetan ezereztuko dituk; bere kaltetan ez dek batere
almenik izango.

LUZBELEK.—Bai, Mikel; Mesias aur ori beste aur askorekin
batera ilaraziko diat.

MIKEL DONEAK.—Atzefira iges egiñ eta zainduko dik bere
bizia.

LUZBELEK.—Gizartean agertzen danean arkaitz batetik beera
amilduaraziko diat.

MIKEL DONEAK.—Bere etsaien esku artetik, iñork uste gabe,
aldegingo dik.

LUZBELEK.—Gizalden afean, jakintsuen bidez, bere izena
belztu egingo diat.

MIKEL DONEAK.—Aien maltzurkeri guziak bere itz utsegin-
gaitzaz autsiko zetik.

LUZBELEK.—Lagunabafen ijiaja eta iraiñ artan, gurutze belz-
gafiari josita, ilaraziko diat.

MIKEL DONEAK.—Ofela Jaungoikoarentzako gizonen zoña es-
taliko dik; eta gurutze agurgafi ori, gizon zintzoak ire afez begira-
tuko dituen, izkilo sendoa eta zeruetako ateak zabalduko dituen, gil-
tza izango dek.

LUZBELEK.—*(Erabat amofuak arturik, Mikel doneari eraso-
tzeko asten dalarik)* Ai Mikel!..

MIKEL DONEAK.—*(Ezpata jaso eta beraz jotzeko, ilxuran)*
Atzera, Luzbel madarikatua!..

LUZBELEK.—*(Mikelek erasotzean, lufera erortzen da eta al
duan amofu eta indar guziaz)* Bera Jaung... Guda Mesias!

MIKEL DONEAK.—*(Luzbel oñazpian artu eta ezpata jasorik)*
Nor Jaungoikoa bezelakorik? Aintza Jaungoikoari!

(1923-XII-7)

SABIAGA.

ARDO-EGINTZA



ARDOAK EGITEN DIRA

Ardotegiak Alcazar de San Joan'en

(Ciudad Real)

Loidi ta Zulaika

Urutidazkin edo Telegrafoa: «LOIDI»

ETXE ONEN LAN NAGUSIA

MEZA SANTURAKO ARDO ZURI GOZOA EGITEN DA

Iruña'n, (Mercaderes, 13) Eusebio Garicano, *Ordezkarria*.

Donostia

ARTILEZKO EUNAK ERLIJIOSOENTZAT

Juan Romeu Voltá'ren Semia.

Praile ta monjentzako eunak, artilezki edo estameñak, eun-me merinoak, kasimirezkoak, sargak, anaskoteak, eun lodiak, eta tamis'koak. Nai dan zabaltasun eta margotakoak. Margo (koloreak) iraunkorak dira.

Sabadell (Barcelona), Illa kalean, 6^{na}. 2486^{ga}ren ufutizkiña. «Rolana» izenean arkitzen du ufutizkiña.

Praile ta Monjari eskatzen diegu, eskatu nai duten eun-gaiaren zatatxo bat bialtzeko areñ. Eta zein margo ta zein neuritakoak edo zer zabaltasun eta loditasunekoak nai dituzten adierazteko. Ofela agudo ta zuzen bialduko zaiote eskatzen digutena.

Luzera aundia emango diezu zere eliz-argizariei,
argizari bereziak erosten ba dituzu.

Kintin Ruíz de Gaunaren Semeari

GAZTEIZ'EN (Vitoria-España)

Ortarako eskatu berari «Kapitel Gauna».

Itxaso bestealdera ere bigaltzen dira.

N O G A T

(Afatol-iltzekoa)



«Nogat» afatoi-iltzekoa edozein sagu ta afatoi-mota ondatzeko biderik erosoena, lastefena ta eragingariena da. Paketea 50 zentimotan saltzen da ondoko etxe auetan.

Iruña'n: Aginaga'ren Botikan, Nabaskues'en Botikan, Ardanaz anaiei drogerian; *Tafalla'n,* C. Sanchez'en botikan; *Carcastillo'n,* Iturialde'ren botikan; *Santakara'n,* R. Molins'en botikan; *Eriber'i'n,* Vives'en botikan; *Ilunber'i'n,* C. Rivera'ren botikan; *Sangosa'n,* J. Cres'en botikan; *Villava'n,* C. Ofizialdegi'ren botikan; *Calahorra'n,* J. Palacios'en botikan; *Tudela'n,* Heredia'ren botikan; *Lizarran,* Estella'n), Albizu'ren drogerian, L. Garcia'ren botikan; *Alfaro'n,* Luis Oliver'en botikan; *Gares'en,* Juan Alcalde'ren botikan; *Bilbo'n,* Barandiaran'en etxean; eta beste botika ta drogeria nagusienetan.

Especialidad Farmacéutica del Laboratorio

Sokatarg

Montaña, 79 y Fomento 53. Teléfono 564 S. M.

BARCELONA

Salgai dauzkagun liburuak

Nere Laguna, Aranaz'tar Lezo'ko Jose A'k. egiña. Iru liburu dira. Iruetan urteko igande guzietako ebangelioaren azalpentxo bat dakar. Euskera adikor eta xamurean ebangelioaren adibide efaz-efaza egiten du. Igandetako ebangelioen itzaldiaz landara zenbait jaietarako itzaldiak ere ba-dakizki. Ama-Birjiña Sortze-Garbikoaren, San Jose'ren, Andre Maria'ren Jasoerakoa eta Domine Santu egunekoa.

Liburu bakoitza 5'na laurleko edo pezetaz eta irurak 12 laurlekoz ematen dira.

Kristau-Ikasbidearen I'ko ta II-ga'en zatiaren Azalpena Intza'r Damaso A'k. egiña. ZERUKO-ARGIA'REN lenengo urtetan an argitara emana da. Azalpen guzia, itzalditan egiteko eran emana dago. Siñismenaren egi bakoitza ta Al-

Aita Kaputxinoen misioetako Abestiak. Auek eresi gabe argitara emanak daude. Bakoitza txakur aundi batean salgai.

Prantzisko Deunaren Bizitzatxoa. Ataun'dar Bonifazio A'k. egiña. Asis'-ko Prantzisko santuaren maitale ta seme-alaba Irugafendar guziak beren etxetan on luketen liburua. Liburu au bi margo-koloretan oso egoki argitara emana dago. Eskaletxoaren bizitza lau itzetan gogorazten zaigu liburutxo ortan. Ortaz landara begietatik sartzen zaigu irakurtzen deguna, 119 ofialdetan ogei ta bi edergari ba dakazkilako. Aufai saritako emateko ere egokia da. Laurleko bat eta erdiz saltzen da.

Eñiarentzako Liturgia. Gaurdaño iru liburutxo argitaratu ditugu. 1930'ean, eta 31 eta 32'an. Lenengoan Liturgiaren urteko aldi nagusienen edesti (historia), ta egokitasuna. Liturgi-urtea, Garizuma, Pazkoa, Pentekoste, Pentekostes Ondorea ta Abendua.

Bigafenean, Liturgia urteko Jairik nagusienen befia dakar, Zirkunzizio Jaia, Eramu-eguna, Aste Santua, Korpus-Kristi eguna, eta ilen eguna, baita Leku Santuetarako egindako jofute edo bela jakingari baten befia ere.

Irugafenean pafokian jaiero egiten diran elizkizunetarako *otoitegi* edo elizkizunbide egokia dakar. Bezperak latinez eta euskeraz, bere eresi edo musikarekin, Meza santuaren Azalpena, Meza santuko otoitz nagusien guziak latinez eta euskeraz eta azkenean *Missa Dominicalis* bere eresi (musika) guziarekin eta euskeraturik. Liburu auetako bakoitza bi efealetan saltzen da eta irurak sei efealez. Baño oafazi nai dugu lenengotik oso gutxi dauzkagula salgai.

Euskal-abestiak, Euskeraren Adiskideak argitara emana. Txortatxo ontan 27 abesti daude. Batzuek Azkue Jaunak bilduak, besteak Donostiar Joseba Andoni A'k. bilduak eta lau Hiriarte'renak. Bakoitza 35 zentimoz saltzen da.

LIBURU BERTIAK

Vocabulario Vasco Castellano por el Presbitero D. Pablo de Zamarripa y Uruga, suplemento a su Gramática Vasca. Segunda edición. Orain iru urte len-dabizikoz azaldu zan. Bigafen argitaldia aldi ofen labufean emateak zerbait esan nai du. Oraingoan zenbait itz geiago sartu ditu ta beste batzuei beren erabilkerako oar batzuek ezafi dizkie. Lengo argitaldiak 72 ofialde zitun eta oraingoak 80 ditu. Bermeo'n, Gaubekaren etxean irafia dago. Idazle beraren liburu salgai daudenak dituzue: Gramática Vasca, Conjugaciones Guipuzcoanas, Manual del Vascófilo, Zapañadak eta, Kili-kili, Gora Begira, Anayak gara.» Onenbeste lan dagin gizonari gure zorionak.

«Egiatzko Argia», Azken-gudako gertakaria, Piarés Iturialdek lau ekitalditan moldatutako antzerkia. Tolosa'n Lopez'en argitaldegian bi ilabetetik agertzen dan aldizkariko zenbaki bat da. 1933'ko Otsaila-Epaila'koa. Antzerki mamitsua, biotzaren ukigafia, kristau egizkoen urin gozo-gozoduna. Aur eta zar guziak ikusi ta asko ikasi ere egiteko egin dezaketena. Euskera efaa, batere mordo-lokeri gabekoa, eta bidenabar efitar uts-utsa du. Irakurtzean atsegin bizia izan dugu. Gure gazteriak onelako antzerki politak eta sinismenaren sendogariak oso mesede ditu. Zorionak egile ta argitatzaleari.

ALDI ONTAKO LITURGIA

Jesus'en jaiotzaren pozaldiak berogei egunez irauten du. Arte ontan jaioberiaren Jaungoikotasuna gure begi aurrean Elizak bere Liturgian azaltzen digu, arte guziko Ebangeliotan aipatzen dizkigun mirarietaz. Agerkunde ondoko iru-gafen igandean, legendunari itz biez egindako sendaketa arifafia esaten bai-zaigu. Aldi ortan guzian igandetako jantziak txuriak eta muskar-kolorekoak izan dira, Elizaren poza adierazteko.

Septuagesima: Irurogeita amargaena. Onela dasaio Garizuma aurreko iru-gafen igandeari. Eta izen au ematen zaio Garizuma arteko garai guzi oni. Iru astez dirau. Setuagesima igandetik, Eliza Pazkora begira jartzen zaigu. Pazko eguneraño Irurogei ta amar egun Septuagesimatik. Izen onek eztu besterik esan nai ere. Jaungoikoa gure zerurazle edo Salbatzaile egin zaigu. Jaungoikoaren Arkumea, Axuria edo Bildotxa munduko (gizaldearen) pekatuak kentzera dator. Auetatik Jesus'ek bere odolaz garbitu bear gaitu; baño baita ere gure egiazko damuz. Argatik igande ontako Epistolan Paulo Apostolu santuak dasaigu: Kofikalarien zelai baten antzeko dala mundua; betiko koroia irabazi nai dugunok, kofikalariak bezala, irabaztekoz gauza asko utzi bearko ditugula. Ebangelioan, eguneko ordu guzietan langileak bere masti edo ardantzerako artzen ta gauean zegokiena ordaintzen aritu zan nagusiaren berdintza edo parabola jafi digu Elizak. Elizak damu-irudiz, jantzi zuriak utzirik, moreak artzen ditu igande ontatik asi-ta.

Sexagesima: Irurogeigafena. Egun ontako Meza, Jaunari gure zoritxañaz efukitasuna eskatuz asten da. Jeikitzeo ta lufeko zikinkerietatik gu ateratzeko afen;—Epistolan Paulo Apostoluak, jentilak Jesukristorenak egiteko eraman zitun neke, min eta afixku gogorak esaten zaizkigu. Ofela ezagutu dezagun zenbaterañoکو ondasuna eman zaigun Jesukristoren graziaz. Erainzalearen berdintza jafi zaigu Ebangelioan. Azi-erailea, Jesus, bere azia, itza zabaldu ta zabaldu ari da. Baño lur guziak edo biotz guziak eztute zitu, emaitz edo frutu berdiña ekartzen. Alegiña egigun lur ona izateko.

Quincuagesima: Befogei ta amargaena. Egun ontako Meza ere Jerikoafa bezala efuki beaŕean arkitzen giñan guzientzat, Jaunaren efukitasuna eskatuz asten da. Epistolan Paulo Apostolu santuak goimaitasuna zein beaŕezkoa dan erakusten digu. Jaungoikoaren eta lagunurkoaren maitetasunik gabe ezerk ez digula balio. Zeruan ere beti loretuko dan onbidea, ori dala. Ebangelioan, Jesus Jerusalem'era zijoaŕn batean, ofek bere Apostoluei esandako itzak dakarzkigu. Jerusalem'en Jesusekin egingo zutena; ilik uzteraño emango zizkioten eramanki-zun gogorak. Gero Jeriko'ra bidean ikusmena oiuka eskatzen zion itxua, itz bitan nola sendatu zuan esaten zaigu. Jesusen urikaltasun beaŕean gauden itxuak, ez al gera gu?

Austere-eguna. Egun ontan efautsa buruan jartzen digu penitentzia egin beaŕa gogoraziz. Austere jai ezta. Baño jai edozeñengatik egun ontako Meza ematera beartzen duen eguna da. Jaunaren urikaltasuna eskatuz asten da. Otõitzean, kris-tau guzientzat barua gogo onez artzea ta zintzo betetzea, eskatzen dio Jaunari. Joel igarlariari (profetari) Jaunak esandako itz-min batzuek dizkio *Epistolak*; Barua ta damua Isfelaŕai eskatuz esandakoak. Barua iluntasunik agertu gabe egiteko esaten digu Jesusek Ebangelioan; geren egintza onez zerurako aberas-tasunak bilatzeko.